



## **Gazteak eta artea indarkeria matxistaren aurka uztarturik, Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunean**

- **Bihar, Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko eguna dela-eta, “Beldur Barik” kanpaina antolatu du Berdinsarea-Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Euskadiko Udalen sareak, Eudelek, Emakundek eta Eusko Jaurlaritzako Genero-indarkeriaren Biktimei laguntzeko Zuzendaritzak sustatuta. Hiru foru aldundiek bat egin dute ekimenarekin.**
- **“Beldur Barik” kanpainaren helburua euskal gazteei indarkeria sexista antzematen laguntzea da, hari aurre hartu eta aurre egiteko.**
- **Datorren azaroaren 27an, “Beldur Barik I. Jaialdia” ospatuko da. Artea, gazteria eta indarkeria matxistari buruzko mintzaldiak izango dira, eta “Adieraz Zaituz Beldur Barik!” arte-lehiaketako lanak izango dira ikusgai.**
- **90 lan aurkeztu dituzte guztira “Adieraz Zaituz Beldur Barik!” lehiaketaren lehenengo ediziora. Zeharka edo zuzenean indarkeria matxista baztertzen duten orotariko arte-adierazpenak balioestea eta sustatzea da lehiaketaren helburua.**

**Bilbao, 2010eko azaroaren 24a.** Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren inguruan, “Beldur Barik!” kanpaina antolatu du Berdinsarea-Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Euskadiko Udalen



sareak. Eudelek, Emakundek (Emakumearen Euskal Erakundea) eta Eusko Jaurlaritzako Genero-indarkeriaren Zuzendaritzak sustatu du ekimena, eta hiru foru aldundiek bat egin dute harekin. Artearen bidez gazteak arazo horretara hurreratzea da aurtengo erronka. Edozein delarik adierazpide artistikoa, emakumeenganako indarkeriaren kontrako jarrerak eta proposamenak sustatu gura dira. Kanpainaren helburu nagusia euskal gazteei indarkeria sexista antzematen laguntzea da, hari aurre hartu eta aurre egiteko.

Horretarako, “Adieraz Zaituz Beldur Barik!” lehiaketaren lehenengo edizioa abiatu zen, zeharka edo zuzenean indarkeria matxista baztertzen duten orotariko arte-adierazpenak balioetsi eta sustatu nahirik. 90 lan aurkeztu dituzte 16 eta 26 urte arteko gazteek. 500 parte-hartzaile baino gehiago izan dira guztira. Epaimahaiak aukeratutako hiru lan onenek 1.000 eurona jasoko dituzte. Hauek dira epaimahaikideak: Dora Salazar eta Maite Garbayo, arte feministan adituak; Maria Silvestre, Emakundeko zuzendaria; Mariola Serrano, Eusko Jaurlaritzako Genero-indarkeriaren Biktimen Zuzendaritzako zuzendaria; Jokin Bildarratz, EUDELeke elkarteburua, eta Josebe Iturriotz, kanpainaren talde eragileko kidea.

Kanpainaren baitakoa da, aurtan, azaroaren 27an ospatuko den “**Beldur Barik I. Jaialdia**”. Ospakizunak kanpainan parte hartu dutenen lana agerrarazteko plataforma izan gura du, eta bertan ikusgai izango da orotariko adierazpide artistikoen aukeraketa: pintura, musika, zinea, dantza, argazkigintza eta poesia-lanak. Bilboko Zabalguneko Merkatuan izango da jaialdia. Lorearen Nahia taldearen eskutik datorren *performance*ak zabalduko du egitaraua, 11:00etan. Egunean zehar mintzaldiak eta mahai-inguruak egingo dira, gazteriari, arteari eta indarkeria matxistari buruzkoak, adibidez: “Generoa eta Ziberespazioa Artearen



ikuspegitik”, “Arte Feministaren Genealogia” edo “Artea eta Feminismoa Euskadin”. Halaber, jaialdiko parte-hartzaileek talde-sorkuntzak egingo dituzte, eta, bertan, sorkuntza tailerrak ere izango dira. Arratsaldean, erakusketako bisita gidatua eskainiko da. Azkenik, “Adieraz Zaituz Beldur Barik!” lehiaketaren emaitzen berri emango du epaimahaiak. Tradiziozko estereotipo maskulino eta femeninoetatik harago indarkeria matxista modurik originalenean landu duten proiektuak sarituko dira. Eutsi taldearen kontzertuak itxiko du 2010eko “Beldur Barik I. Jaialdia”. 2009ko kanpainan ere, neska gazteek osatutako musika-talde horrek eskaini zizkigun bere musika eta gogoetak.

### **Sentsibilizazio-kanpaina**

Gazteei zuzendutako kanpaina da “Beldur Barik!”, eta emakumeen eta gizonen arteko harremanetan jarrera positiboak eta errespetuzkoak sortzea eta finkatzea du helburu, batez ere helduaroari bide ematen dion bizitza-sasoi garrantzitsu horretan.

Aurreko kanpaina bietan legez, aurten ere puntu lila erabili dugu emakumeenganako indarkeriaren kontrako irudi gisa. Irudi hori erabiliko dugu azaroaren 25eko astean. Kanpaina sustatzen duten erakundeek dei egiten diete herritar guztiei, elkarteei, komunikabideei, saltokiei eta abarri, indarkeria matxistaren aurkako jarrera adieraz dezaten, puntu lila hori eurek ikusgarrien uste duten moduan agertuz. Irudi horren bidez, indarkeria matxista islatzen duten portaera eta jardunbideen kontrako jarrera bateratua erakutsi gura da.



## **Datuak**

Ertzaintzak biktimizazioei buruz emandako datuen arabera, 2009an bikotekideek edo bikotekide ohiek emakumeenganako indarkeria baliatzeagatik izandako biktimizazioen %35 18 eta 30 urte bitarteko emakumeek egindakoak izan ziren. Adin tarte horretan, 1.288 interbentzio egin zituen Ertzaintzak emakumeenganako indarkeria kasuengatik. Askatasun sexualaren kontrako delituak<sup>2</sup> ere emakumeenganako indarkeriaren isla dira. 2009an era horretako delituen biktima izan ziren emakumeen ia %68 30 urtetik beherakoa izan zen; 30 urtetik beherako 183 emakumek jasan zituzten halako delituak.

Ertzaintzaren interbentzioa izan zen kasuetako %27tan, emakumeak eraso zituzten gizonen adina 18 eta 30 urte bitartekoa da.

Datuotan ageri-agerikoa da gazteekin lanean jarraitzea ezinbestekoa dela, euren arteko harremanetan berdintasun-balioak sustatzeko.

## **Berdinsarea**

2005ean sortu zen Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Euskadiko Udalen sarea, EUDELen eta Emakunderen bitartez. Aurten, bi horiei Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Genero-indarkeriaren Biktimen Zuzendaritza gehitu zaie. 48 udalerrik osatzen dute sarea, eta euskal biztanleen %70 ordezkutzen du.

---

1 Biktimizazioak: debeku penalak direla-eta Ertzaintzak esku hartutako kasuak dira. Hala, jasandako mehatxuengatik pertsona berak jarritako salaketak biktimizazio ezberdin gisa kontabilizatzen dira.

2 Aipatutako kasurik gehienetan, eraso sexualaren ostean sexu-abusua jazo da.



Berdinsarearen egitekoa da toki administrazioek kudeatutako gizon eta emakumeen berdintasunerako eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako programa eta zerbitzuak bultzatzea, sendotzea, koordinatzea eta ebaluatzea. Horretarako, jarduera- eta ebaluazio-irizpide bateratuak definitu behar ditu; lan hori tokiko jardunbide publikoaren maila guztietara helduko den programa integralean sartu beharrekoa da; gainera, Sarea udalaz gaindiko beste erakunde batzuetara heltzeko lotura gisa erabiltzekoa da.

Bilboko Udaleko Berdintasun, Kooperazio eta Herritargo Sailak lehen aldiz antolatu du TRUE LOVE lehiaketa, non sariak gazteriarengan emakume eta gizonen arteko berdintasunean oinarritutako amodio harreman eta lige positiboak uztartu nahi dituen, bertsolaritza eta rap-a bezalako bi estilo hain ezberdinen arteko fusiotik sortutako espresiotik abiatuta.

### **Parte hartzen duten erakundeak**

#### Arabako Foru Aldundia

Alde batetik, Covadonga Solaguren Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuetarako ahalduak modu positiboan balioetsi du Berdinsareanek 5.000 biztanletik beherako udalerrietan bideratzen duen aholkularitza eta laguntzarako programak Araban izan duen erantzuna. “Lurralde osoan sarea zabaltzen ari delarik, berdintasuna eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako borroka Arabako txoko guztietara ari da heltzen”. Beste alde batetik, Solagurenek gogorarazi elkarretaratzea bigarren urtez egingo da, bihar, osteguna, eguerdiko 12:00etan, Arabako Foru Aldundiko eskaileretan.



### Bizkaiko Foru Aldundia

”Beldur Barik!” kanpaina zuzenean finantzatzeaz gainera, aurretik aipatutako jardun-lerroei jarraiki, Bizkaiko Foru Aldundiak bere egin du puntu lila, indarkeria mota honen aurka egingo duen manifestaldirako. Hargatik, puntu lila ikusgai izango da asteon erakundearen eraikin esanguratsuenetan: Foru Jauregian bertan, eta Foru Aldundiak hirigunean dituen eraikin esanguratsuenetako batzuetan (Herri Lan Saila, Ekonomi Sustapen Saila, Foru Liburutegia, Errekalde Aretoa eta Ogasun Saila). Era berean, Bilboko tranbiak ere puntu lila jantziko du asteon, hiri osoan zehar egiten duen ibilbidean haren mezua zabalduz.

### Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak emakumeenganako indarkeriaren inguruan bere aldarrikapen eta desioak idatziko ditu gaur Foru Jauregiaren sarreran ipinitako puntu lila erraldoian, herritarrei ere beraien mezuak idaztera animatuz. “Genero indarkeria gizarte osoaren arazo bat da, tamalez era unibertsalean zabaldua. Eta horrek behartzen gaitu komunitate guztiei indarkeria mota hau behin betirako desagertu dadin lan eta esfortzu guztiak egitera”.

### UPV-EHU

UPV/EHUK Beldur Barik! kanpainaren hedapenean laguntza garrantzitsua eskaini du aurren. Berezi, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean – Bizkaian- eta Irakasleen eskolan –Araban- egin dira hedapen ekintza garrantzitsuenak. Gainerako ikastetxeetan ere kanpainaren berri jaso dute ikasleek euren artean zabaltzeko eta honekin batera, Berdintasunerako



Zuzendaritzak bere web orrian ere eman du honen berri eta ikastetxe guztietan banatu dira kanpainaren eta jaialdiaren kartelak.

Informazio guztia, hemen: [www.beldurbarik.org](http://www.beldurbarik.org)